



MUSIKA KLASIKOA

2 19:30 **Euskadi Brass** taldearen kontzertua Amizuriaga parkean.



3 19:30 **Marta Ubieta** sopranoa, **Jose Manuel Diaz** baritonoa eta **Mario Larena** pianorekin. Errekalde parkean. (Eguraldi txarrekin Pleno aretoan).



10 19:30 **Kaabestri Ensemble** kontzertua Mariaren Lagundiko elizan.



17 20:00 **KEA** ahots taldearen kontzertua Santa Marina elizan.

4 19:00 **Loreto Fernandez Imaz**-en organo kontzertua Santa Marina elizan. **Antolatzailea:** Stoltz-Frères organoaren aldeko elkarte. Sarrera: 5€. Sarreretatik izandako irabaziak Stoltz-Frères organoa eraberritzeko erabiliko dira.



EGUAZTENEN AZOKA

7, 14, 21, 28

18:00-21:00 Baserritarren eta bertako produktuen azoka Oxirondo azokan.

BESTELAKOAK

14 16:00 **KAFE KONPON** San Joxepen. Etxeko trasteren bat hondatuta duzula? Etorri, eta denon artean konponduko dugul!



22 16:00-20:00 **Mugikortasunaren eguna.**

30 19:00 **Makrobiotikari buruzko hitzaldia Jexux Larretxearen** irizariarekin.



JAIK

2, 3, 4 **Kofraixak** ospakizuna (Osintxun).

3 **San Lorentzo** jaietako ospakizuna.

San Emeteri jaiak (San Matei, Ubaran).

15, 16, 17, 18 **San Martin** jaiak eta **San Martin** feria.

29 **San Migelak** jaiak (Angiozarren).

KULTURA KALERA

23 19:00 **Bikote nagusientzako 31. DANTZA SUELTO TXAPELKETA** udal pilotalekuan. Moises Azpiatzuren oroimenez. **Antolatzailea:** Bergarako Musika eta Dantza Eskola.



24 11:00 **"Jauregi etxeko erliebeetan inportazioko artea"**. Hizlaria: Jesús Muñiz Petralanda. (Gaztelerez). LABORATORIUM Museoak antolatuta, Pleno aretoan.

LABORATORIUM

17:00 **Bisita gidatua** Bergaran.



18:30 **Bergarako Orkestra Sinfonikoaren Metal taldea eta Erraldoi Taldearen kalejira.**

19:00 **San Joxepe, Aritzeta, Bergarako Orfeoia, Bergarako Orfeoi Gaztea eta Alai taldearen kontzertua**, San Martin plazan.

Bukaeran, Bergarako ereserkia abestuko dute Bergarako Orkestrako kideen laguntzaz, San Martin plazan.

Ondoren, kantu jira popularra Bergarako kaleetan. Ibilbidea: San Martin plaza, Irala kalea, Simon Arrieta eta Udal pilotalekua.

Batukada taldearen kalejira.



25 11:00 **Bisita gidatua.**

Ondoren, Bergarako Orkestra Sinfonikoaren Soka taldea, Errekalde Jauregian (eguraldi txarrekin Pleno aretoan).

12:00 -13:30 **Tailerrak** San Martin plazan.



- Taila elkarte,
- Zeramika elkarte,
- Bolillos taldea,
- BET Erraldoi Konpartsaren ate ireki jardunaldia,
- Bergarako Stoltz-Freres Organoaren Lagunen Elkarte,
- BEART elkarte,
- Musika eskola Instrumentuak ikusi eta probatzeko aukera,
- Musioka jokoa.

19:00 **DANTZA** ikuskizuna zuzeneko musikarekin Bergarako Musika eta Dantza eskolaren eskutik San Martin plazan.



ZINE-KLUBA

Zabalotegi Aretoan. 20:00etan. Sarrera: 3€.

Gaia: ADIERAZPEN ASKATASUNA

14



MUSTANG
Zuzendaria:
Deniz Gamze Ergüven

21



LA SAL DE LA TIERRA
Zuzendariak:
Wim Wenders,
Juliano Ribeiro Salgado

28



TRIBUNAL
Zuzendaria:
Chaitanya Tamhane

ERAKUSKETAK

Aroztegi Aretoan

• **Joseba Leturiaren** argazki erakusketa: abuztuaren 26tik irailaren 11ra.

• **Aranzadi ikastolaren Kilometroak** erakusketa: irailaren 16tik urriaren 2ra.

Pleno Aretoan

• **Ageriko 43. Simon Arrieta pintura lehiaketako lanen erakusketa:** irailaren 21etik urriaren 6ra.

Asteartetik ostiralera: 18:00 - 20:30
Larunbatetan: 12:00 - 14:00 eta 18:00 - 20:30
Igande eta jai egunetan: 12:00 - 14:00

Bestelakoak

- **Nahikari:** Ignacio Moreno
- **Pol-Pol:** Murgizu
- **Dixula:** Idoia Elexpuru
- **Hamaika:** Jon Balenciaga
- **Artesan:** Juanjo Altuna
- **Raizabal:** Joseba Leturia

IKASTAROAK

• **KONTSERBAK EGITEN IKASI:**
Barazkiak, frutak, haragiak, arraiak, etab.
Datak: Irailak 12, 13 eta 15ean.
Lekua: San Joxepe Jubilatu Elkarte.
Irakaslea: Maite Angoitia.
Prezioa: 30 €
Izenematea eta Informazioa: Bizikasi zerbitzuan, irailaren 8a baino lehen (943 769394 edo info@bizikasi.com).



• **EUSKARA IKASTAROA:**
A1, A2, B1, B2, C1 (EGA) eta C2 prestatzeko ikastaroak
Lekua: Bergarako Udal Euskaltegian
Matrikulazioa: irailaren 1etik 27ra (09:00/13:00 eta 14:30/18:30)
Informazio gehiago: Udal Euskaltegian (Barrenkalea, 33 Irizar jauregia / 943 76 44 53 / euskaltegia@bergara.eus

• **KZ GUNEKO IKASTAROAK:**
Oinarritzko Internet, sare sozialak, argazki ukitua GIMP erabiliz, Smartphoneak eta tabletak, Google apps.
Datak: Asteleheneretik ostiralera 9:00-13:00/16:00-20:00
Lekua: Barrenkale, 33 - 3.
Informazioa: KZ gunean 943 023 626 edo tutor@kzgunea.net.

ALAI TALDEA

GIZONEZKO AHOTS GRABEEN ABESBATZA

1971. urtean sortutako gizonezkoen ahots grabeen abesbatza da. Bergarako ohitura eta kultura bultzatu eta kale giroa kantuz alaitzeko helburuarekin sortu zen. Batez ere euskal abestiak lantzen dituzte. 2009. urtean elkarte bezala eratu ziren.

- **PARTAIDE KOPURUA:** 16
- **TALDEA BILTZEKO** - EGUNA(k): Asteazkena.
- ORDUA: 20:00 -21:00
- TOKIA: Ospitaleko eliza (Mizpirualde).

- **EGITEN DUTEN LANA:**
- Entseguak.
- Bergarako auzoetako jaietan kontzertuak.
- Hiriguneko egun bereziak girotu (Santa Ageda bezpera, Eguberriak ...).
- Irteerak beste herri batzuetara.
- **KONTAKTURAKO TELEFONOA:** 609 786 484 (Jose Ignazio).



ARITZETA ABESBATZA

1979. urtean sortu zen abesbatza. Sortu zenetik 400 pertsona inguru pasa dira bertatik. Gaur egun 22 urtetik 65 urtera bitarteko 25 kidek osatzen dute talde koral hau. Euskal Herrian ez ezik Espainian ere eman dituzte kontzertuak, eta hainbat antzerki lan eta musikaletan ere hartu dute parte.

- **PARTAIDE KOPURUA:** 25
- **PARTAIDEEN ADINA:** 22 urtetik 65ra bitartekoak.
- **TALDEA BILTZEKO** - EGUNA(k): Astelehena eta asteazkenetan.
- ORDUA: 21:00-22:30
- TOKIA: Ospitaleko eliza (Mizpirualde).

- **EGITEN DUTEN LANA:**
- Gabonetako kontzertua, ihauterietako kontzertua, bestelako kontzertuak...
- Hainbat antzerki lan eta musikaletan hartu du parte.
- Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko fundatzailea ere bada.
- **KONTAKTURAKO TELEFONOA:** 660 983 278 (Xabier) edo aritzetaabesbatza@gmail.com



ARAKNE TALDEA

ARAKNE BERGARAKO PAPPAILARIEN ELKARTEA

2013. urtean sorturiko elkarte da, enkaje arloan ematen diren teknika ezberdinak ikasi eta teknika hauekin loturiko ezaguera teorikoak eskuratzeko asmoz.

- **PARTAIDE KOPURUA:** 7
- **TALDEA BILTZEKO** - EGUNA(k): Osteguna.
- ORDUA: 15:00-17:00
- TOKIA: Irizar Jauregia.

- **EGITEN DUTEN LANA:**
- Taldeko lana egin.
- Enkaje inguruko esperientziak eta ezaguerak trukatu eta giza-harremanak sakondu.
- Elkartearen kideen ezaguera teknikoak eguneratu (liburu eta errebista berrien aurkezpena).
- Erramu Zapatuko Ferian lehen erakustaldia egin.
- Nazio eta nazio-arteko Erakustaldi eta Batzarretan parte hartu.
- **KONTAKTURAKO TELEFONOA:** 660 772 532 (Mertxe).



ARIZONDO ARGAZKI TALDEA

2012. urtean argazkilaritza bultzatzeko helburuarekin osatutako elkarte. Jatorria Pol-Pol argazki taldean du, (1994. urtean sortua).

- **PARTAIDE KOPURUA:** 30
- **PARTAIDEEN ADINA:** 24 urtetik 67ra bitartekoak.
- **TALDEA BILTZEKO** - EGUNA(k): Astelehena.
- ORDUA: 19:30 -21:00
- TOKIA: Zabalotegi, 5 (Lokala).

- **EGITEN DUTEN LANA:**
- Argazki teknika erakutsi.
- Urteko ekintzak antolatu.
- Lokalaren mantenua landu.
- Ikastaroak prestatu. Oinarritzko argazkilaritza ikastaroa, Photoshop ikastaroa eta mugikorrarekin oinarritzko argazkilaritza ikastaroa.
- "Bergara Hiria" argazki lehiaketa eta "Kirol argazki lehiaketa" antolatu eta ondoren erakusketak egin.

• **KONTAKTURAKO TELEFONOA:** 630 975 500 (Joseba).
678 388 142 (Benito).



Bergarako Udala
Kultura Zerbitzua
943 77 91 59
kultura@bergara.eus



BATUKADA TALDEA

Bergara, Urretxu, Zumarraga, Ordizia eta Beasaingo lagunek osatutako taldea da. Entseguak egiteaz gain, Bergara eta inguruko herrietako jaietan parte hartzen dute.

- PARTAIDE KOPURUA: 20
- TALDEA BILTZEKO - EGUNA(k): Astelehena.
- ORDUA: 20:00-22:00
- TOKIA: Urretxun.

- EGITEN DUTEN LANA:
- Entseguak
- Bergarako jaietan parte hartzen dute.
- Irteerak beste herri batzuetara.

- KONTAKTURAKO TELEFONOA: 686 287 680 (Nerea) edo madaro_n@hotmail.com



BERGARAKO ORFEOI GAZTE-GABERO ABESBATZA

Orfeoi gaztearen helburua Kantu-zaletasuna suspertzea eta Bergarako Musika Eskolako haur koruen eta Bergarako Orfeoiaren artean ubi-lana egitea da. Bergarako, Euskal Herriko eta munduko musika abestea eta bide batez, zaletasun korala zabaltzea da.

- PARTAIDE KOPURUA: 12
- PARTAIDEEN ADINA: 13-18 urte bitarteko gazteak.
- TALDEA BILTZEKO - EGUNA(k): Asteartea.
- ORDUA: 19:30
- TOKIA: Sta. Marinako sakristau etxean.

- EGITEN DUTEN LANA:
- Gabonetako kontzertua.
- Elkartrukeak beste herrietako abesbatzekin.
- Ikuskizun musikalak: Seussen Mundua, Peter Pan...

- KONTAKTURAKO TELEFONOA: 639 471 863 (Karlo) bergarakoorfeoi@gmail.com



BEART ELKARTEA

PINTURA, ESKULTURA... ARTE PLASTIKOAK

Arte plastikoak babestu, promozionatu eta hedatzeko helburuarekin 1995.urtean sortutako elkarteak. Bergarako arte-eskola berritortu martxan jartzea ere lortu zuen, eta gaur egun Bolua kalean dute egoitza. Hainbat ikastaro ematen dituzte bertan, eta lehiaketak ere antolatzen dituzte herrian Bergarako Udalarekin lankidetzan. Horretaz gain, Bergarako Aroztegi aretoa ere jarri zuten abian Udalarekin batera, eta baita Bergara Hirigune historikoa koloretan aire libreko museo-proiektua ere.

- PARTAIDE KOPURUA: 68
- PARTAIDEEN ADINA: 19 urtetik 90era bitartekoak.
- TALDEA BILTZEKO - EGUNA(k): Asteartea.
- ORDUA: 18:00-20:00
- TOKIA: Lokalean, Bolua, 49.

- EGITEN DUTEN LANA:
- Pintura eta beste arte plastikoaren ekintzak burutu.
- Erakusketen, lehiaketen eta beste ekintzen informazioa jaso eta bazkideei jakinaraztea.
- Haurrentzat ikastaroak antolatu: urte osoan eta udan.
- Nagusientzat pintura ikastaroak.
- Beste erakundeak antolatutako ekintzetan parte hartu (Aroztegi aretoak erakusketak kolektiboak; Eskaparate lehiaketetan epaimahaikide bezala parte hartu).
- Ikastaro monografikoak antolatu.
- Bergarako hirigune historikoa koloretan aire libreko museoa.
- KONTAKTURAKO TELEFONOA: 628 266 597 (Juanjo Altuna) edo beart.elkartea@gmail.com



BERGARAKO BUZTINZALE ZERAMIKA ESKOLA

Zeramika lantzen 30 urtetik gora daramatzate, baina 2006. urtean eratu zuten elkarteak. Hainbat zeramika modalitate lantzen dituzte: tomua, muralak, eskultura...

- PARTAIDE KOPURUA: 12
- PARTAIDEEN ADINA: 35 urtetik 60ra bitartekoak.
- TALDEA BILTZEKO TOKIA: Zabalotegi 11, behe (Lokalea).
- EGITEN DUTEN LANA:
- Erakusketa Aroztegi aretoan.
- Bergarako jai eta ferietan jendaurreko erakusketa eta tailerrak.
- KONTAKTURAKO TELEFONOA: 652 771 583 (Felix).



BERGARAKO STOLTZ-FRÈRES ORGANOAREN LAGUNEN ELKARTEA

2014. urtean sortutako taldea da. Irabazi asmorik gabeko elkarte honek helburu bakarra du: "Bergarako Pedro Deunaren parrokiako Stoltz-Frères organoa maila guztietan babestea, sustatzea eta zabaltzea". Organo hau XIX. mendeko organo handien lekukoa dugu, jatorrizko egoeratik oso gertu dago, eta horrela mantendu behar da. Baina, 1889. urtetik hona urteak pasa dira eta denboraren zama jasaten ari da. Gaur egun egoera kritikoa dago, eta behar-beharrezkoa da eraberritzea; baina bere jatorrasuna, bere ezaugarriak eta bere esentzia galdu gabe. Horregatik saiatzen ari gara instrumentua ezagutarazten herrian eta mundu osoan; hemen dugun bitxi handi hau zaintzeko deia darra eginez, berandu baino lehen.

- TALDEA BILTZEKO: Alkabieta 1 (San Martin Agirre parrokiatxea, "Sierbak"). Egun finkorik gabe.

- EGITEN DUTEN LANA:
- Organoaren balioa aitortzeko bideak zabaltzea (erakundeetan, herrian, munduan).
- Organoa eraberritzeko fondoak lortu (laguntzak, dohaintzak...)
- Organo-kontzertuen bidez elkartearen eta organoaren egoeraren berri eman.

- KONTAKTURAKO:
- bergaraorganoa@gmail.com
- Facebook-en "Bergarako Stoltz-Frères Organoaren Lagunen Elkarteak".



BERGARAKO ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA

2001. urtean Bergaran sortutako taldea. 4 erraldoirekin hasi zuten beren jarduna, eta gaur egun 6 erraldoi handik, 4 txiki, 2 ipotz eta 6 buruhandi eta 4 kiliki osatzen dute konpartsa.

- PARTAIDE KOPURUA: 30 nagusi eta 15 ume.
- PARTAIDEEN ADINA: 6 urtetik 73ra bitartekoak.
- TALDEA BILTZEKO - EGUNA(k): UMEAK, igande goizetan, 15ean behin. NAGUSIEK, ez dute egun zehatzik.
- TOKIA: Zabalotegi kalea, 3 (Gaztelekua).

- EGITEN DUTEN LANA:
- Herriko zein kanpoko jaietan erraldoi eta buruhandiekin kalejiran irtetea.
- Erraldoiekin dantzak entsaiatu.
- KONTAKTURAKO TELEFONOA: 649 444 828 (Ibon).



BERGARAKO TAILA ELKARTEA

2.004an eratu zen Bergarako Taila Elkarteak, egur mota ezberdinak ezagutu eta lantzeko helburuarekin. Asteke edozein egunetan zabaltzen dituzte beren lokaleko ateak, norberaren premien arabera. Hasi berrirentzako ikastaroak ere lantzen dituzte.

- PARTAIDE KOPURUA: 25
- PARTAIDEEN ADINA: 27 urtetik 88ra bitartekoak.
- TALDEA BILTZEKO - EGUNA(k): Egunero.
- ORDUA: Goizez 10:00-13:00; arratsaldez 16:00-20:00
- TOKIA: Lokalean, Zabalotegi 11-behea.

- EGITEN DUTEN LANA:
- Marrazkiak egurrean.
- Taila egurrean (figurak, koadroak ...).
- Egurren tratamenduak (pipiaren aurkakoa, tintak, pinturak).
- Ikastaroak antolatu: hastapen eta sakontze mailak.
- Urteko lanen erakusketa, Aroztegi aretoan.
- KONTAKTURAKO TELEFONOA: 696 406 721 (Javier).



BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolan guztira 570 ikasle ditu, 3 urtetatik hasi eta ... helduak baita ere. Guztira 25 irakasle ditu eta 28 instrumentu ezberdin eta euskal musika ikasteko eskaintza.

- PARTAIDE KOPURUA: 500
- PARTAIDEEN ADINA: 3 urtetik aurrera.
- TALDEA BILTZEKO - EGUNA(k): Astelehene ostiralera.
- ORDUA: Arratsaldez.
- TOKIA: Espoioia z/g.

- EGITEN DUTEN LANA:
- Musika eta mugimendu tailerrak (5 urtetik aurrera).
- Hizkuntza Musika (helduentzat ere).
- Ahotsa, abesbatzak eta kantu bakarlarria.
- Instrumentu musikalak: Troboia; Tuba; Bonbardinoak; Tronpa; Tronpetak; Klarineta; Oboe; Flauta; Fagot-a; Saxofoia; Biolina; Biola; Biolontxeloa; Gitarra; Pianoa; Organoa; Akordeoia; Perkusioa; Kantua.
- Herrikoiak: Alboka; Txistua; Trikitixa, Panderoa eta Txalaparta.
- Instrumentu modernoak: Gitarra eta Baxu elektrikoak; Bateriak; Armonika; Konboak.
- Bibolina 3 urtetik aurrera.
- Musikoterapia.
- Euskal Dantza
- Taldeak: Orkestra; Banda; Trikitixa; Abesbatzak, Big Band, akordeoi taldea, txistu taldea...

- KONTAKTURAKO TELEFONOA: 943 76 57 80 (Musika Eskola) edo idazkaritza@bme.e.telefonica.net



JARDUN EUSKARA ELKARTEA

1990. urtean Bergaran euskararen normalizazioa eta euskal kultura zabaltzeko sortutako taldea. Bergarako Errotalde jauregian dute egoitza nagusia, eta Zubietako eskola zaharrean ekintza gunea.

- PARTAIDE KOPURUA: la 600
- PARTAIDEEN ADINA: Adin guztietakoak.
- EGITEN DUTEN LANA:
- Aisialdian: Jolasleku ibiltaria, txorimalo lehiaketa, udalekuak, tailer eta jolasak, zaintza zerbitzua...
- Gaztelekua eta Bergarako eta Osintxuko ludotekak kudeatzen ditu.
- Kulturaren: Bertso eta antzerki eskolak, amodiozko gutunen lehiaketa, kultur ekitaldiak, hitzaldiak, ikastaroak, kantu afaria...
- Sentsibilizazioa: idazlaguna, euskarazko irakurzaletasun astea, euskarazko liburu truke azoka, jaietako zapiak eta pegatinak, euskararen eguna...
- Udalararen laguntzarekin: euskara errefortzuak, Berriketan eta Auzoko.
• KONTAKTURAKO TELEFONOA: 943 763 661 / 605 712 469 edo jardunkultura@topagunea.com



BERGARAKO ORFEOIA

1923.urtean sortutako elkarteak Euskal Herriko musika eta abesteko zaletasuna zabaltzeko helburuarekin.

- PARTAIDE KOPURUA: 182
- PARTAIDEEN ADINA: 20 urtetik 77ra bitartekoak.
- TALDEA BILTZEKO - EGUNA(k): Astearte eta ostegunetan.
- ORDUA: 20:30-22:30.
- TOKIA: Santa Marinako sakristau etxean.

- EGITEN DUTEN LANA:
- Gabonetako kontzertua.
- Elkartrukeak beste herrietako abesbatzekin.
- Ikuskizun musikalak: Seussen Mundua, Peter Pan, ...
- KONTAKTURAKO TELEFONOA: 639 471 863 (Karlo) edo bergarakoorfeoi@gmail.com



SAN JOXEPE ABESBATZA

1975. urtean sortu zen, Bergarako jubilatuen elkartearen baitan. Gaur egun 45 lagunek osatzen dute taldea, 65 urtetik 90 urtera bitarteko gizon eta emakumeek. Hamarkada batez Jose Patxi Azkarate antzuolarra aritu da abesbatzako zuzendari lanetan, eta gaur egun Ramon Amosarrain da koruko zuzendaria.

- TALDEA BILTZEKO - EGUNA: Eguenetan
- ORDUA: 17:30 - 18:30
- TOKIA: San Joxepeko egoitzan.
- KONTAKTURAKO TELEFONOA: 943 764 690 edo sanjoxepe@telefonica.net

